

BERRITZEGUNEAREN EGITURA
Nortzuk gara?

Prestakuntzarako eta Hezkuntza Berrikuntzarako Laguntza Zerbitzua gara, eta Barakaldoko ikastetxeen arloan lan egiten dugu. Bertoko langileak ikastetxeetako irakasleak dira, eta hautaketa zein esleipen prozesuaren ostean lortu dute lanpostua.

Hona hemen gure osaketa:

LAN-ESPARRUA / AMBITO LABORAL	LANPOSTUA / PLAZA
ZUZENDARITZA / DIRECCION	ZUZENDARIA / DIRECTOR
ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACION	IDAZKARI DOKUMENTALISTA / SECRETARIO-DOKUMENTALISTA
PROGRAMETAKO AHOLKULARIAK	HIZKUNTZA-NORMALKUNTZA / NORMALIZACION LING.
ASESORIAS DE PROGRAMA	ANIZTASUNA / DIVERSIDAD IKTak / TICs
ETAPETAKO AHOLKULARIAK	HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA / INFANTIL-PRIMARIA
ASESORIAS DE ETAPA	LEHEN HEZKUNTZA: HIZKUNTZA PROZESUAK (PROCESOS LING.) BIGARREN HEZK.: ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA / AMBITO CIENTÍFICO-TECNOLOGICO BIGARREN HEZK.: GIZARTEA ETA HIZKUNTZA / AMBITO SOCIO-LINGÜISTICO
HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIJETAKO AHOLKULARIAK	GARAPENAREN ARAZO OROKORRAK / TRASTORNOS GENERALES DEL DESARROLLO GIZARTERATZEA / INSERCIÓN SOCIAL KOMUNIK. ULERGARRITASUNA ETA GARAPENA / ACCESIBILIDAD Y DESARROLLO DE LA COMUNICACIÓN IKASTEKO GAITASUNEN GARAPENA / DESARROLLO CAPACIDADES APRENDIZAJE
ASESORIAS DE NECESIDADES EDUCATIVAS ESPECIALES	LOGOPEDIA LOGOPEDIA LOGOPEDIA FISIOTERAPIA

Gure egiturak ikastetxeen premiei erantzutea dauka helburu. Profesional-taldea gara, eta euren artean osagarriak diren arloetan daukagu esperientzia. Gure arduraldia erabatekoa denez, aztertze, bilatzeko, proposatzeko, orientatzeko eta ikastetxeetan ebaluaziorako zein hobekuntzarako dinamikak sustatzeko astia eta talde-egitura daukagu. Berritzegunea balio handiko tresna da, premiak antzemateko, euren plangintza egiteko, estrategiak eskaintzeko eta ikastetxeen nahiz profesionalen arteko topaketak, trukeak, koordinazioak antolatze eta sustatzeko... Ikastetxeentzat, hain zuzen ere, oso zaila da zeregin horiei guztiei aurre egitea, ikastetxeen funtzionamendu egokiari begira funtsezkoak badira ere.

Eskualdeko premiak etengabe aldatzen direnez, esleitutako eginkizunak eta esku hartzeko ereduak berrikusi behar dira.

Ikasgelarekin harremanik eduki ezean, gure eraginkortasuna mugatua izan daiteke aholkuak emateko orduan, beti ere muga horri aurre egiteko moduko proposamenik kontuan hartzen ez bada.

ESKUALDEAREN EZAUGARRIAK

Non gaude?

B04 Berritzeguneak aholkularitza eskaintzen die Nerbioi Itsasadarreko Ezkerraldean dagoen Barakaldoko ikastetxeei.

Gure eskualdea goitik behera aldatu eta berritu egiten denez, aurreikuspenak interesgarriak dira oso. Ikuspegi ekonomikoari dagokionez, Barakaldo lantegiz beteta zegoen lehen, eta, gaur egun, ordea, zerbitzu-hiria da. Eskualdearen ezaugarrietan zeresan handia du honako arlo hauetako aniztasunak:

Hizkuntza-arloko alderdiak: Eskualdea erdalduna da batez ere, eta, bertako hizkuntza-ereduak elebidunak dira gehienetan.

Gizarte eta kultura arloko alderdiak: Barakaldoko eta inguruko udalerrietako gizarteak etorkinak hartu ditu historiari begira, eta, gaur egun ere, zenbait nazionalitatetako atzerritarrak hartzen ditu. Hori dela eta, ikastetxeen egitura eta funtzionamendua berrikusi behar dira.

Alderdi pertsonalak: Azken urteotan, ezintasunen, gizartearen, nortasun-arazoan, jokabidearen... arloko eskariak areagotu dira. Horiei guztiei erantzuna ematea oso zaila denez, eskualdeko zenbait zerbitzu koordinatu behar dira.

Une honetan, Berritzeguneak 31 ikastetxerentzat lan egiten du:

- Haur eta Lehen Hezkuntzako 12 ikastetxe.
- DBHko eta DBHoko (Batxilergoko eta Prestakuntza-zikloetako) 5 ikastetxe publiko.
- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko 9 ikastetxe.
- Haur-eskola bat.
- HHEko ikastetxe bat.
- Hizkuntza Eskola Ofizial bat.
- Udaleko Musika Kontserbatorio bat.
- Lanbide Hastapeneko ikastetxe bat.

Ikastetxe gehienak berrikuntzako eta/edo prestakuntzako proiektuak ikastetxean bertan egiteko prest daude. Izan ere, gako berriak aurkitu behar dira, zenbait alderdiri arrakastaz aurre egin ahal izateko. Horra hor aniztasunaren tratamendua, elkarbizitza, inklusibotasuna, irakasteko eta ikasteko prozesuetan IKTak kontuan hartzeko prozesua, kalitatearen erronka, hizkuntza-normalkuntza...

Irakasle askok sarritan parte hartzen dute Berritzeguneak antolatutako ikastaro, mintegi eta lan-taldeetan.

Barakaldoko Udalak egitura sendoa dauka Hezkuntza eta Kultura Sailean, eta hainbat urtetako esperientzia dauka. Hori dela eta, aurreko urteetatik daramagu berarekin lan egiten, eta emaitzak oso onak izan dira. Era berean, Gizarte Ongizate Saillarekin, Emakumeen Saillarekin eta Droga-menpetasunen Saillarekin batera ere lan egiten dugu.

Bestetik, Osakidetzarekin eta Justiziarekin ere lan egiten dugu eskualdean.

Barakaldotik kanpo daudenez, oso zaila da ikastetxe gehienekin harremanetan egotea.

BERRITZEGUNEAREN EGINKIZUNAK

Zertarako gaude?

Gure eginkizunak 2001eko otsailaren 16ko EHAA-n daude azalduta.

1. Aholkularitzaren arloan.

- Ikastetxeei aholkularitza eskaintzea eta euren premiak zein ekarpenak balioestea eta bideratzea.
- Hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleak atenditzeko orduan, ikastetxeei eta irakasleei aholkularitza ematea.
- Baliabide pedagogikoak eta ikasmaterialak kudeatzea.
- HPBen arloan, eskualdeko baliabideak kudeatzea.
- Sailak sustatutako programetan aholkularitza eskaintzea.

2. Prestakuntzaren arloan.

- Irakasleen prestakuntzarako eskualde-planak egitea.
- Prestakuntzako proiektuetan laguntzea (diseinua, prestaketa, garapena, ebaluazioa).
- Prestakuntzaren ondorioz sortutako premiak kudeatzea.
- Sailak eskatuta, irakasleen prestakuntzarako planetan laguntzea.

3. Berrikuntzaren, saiakuntzaren eta ikerketaren arloan.

- Berrikuntzako proiektuetan laguntzea (diseinua, prestaketa, garapena, ebaluazioa).
- Irakaskuntzako esperientzien trukea sustatzea.
- Sailaren helburuen eta/edo ikastetxeen eskarien araberrako baliabideak eta ikasmaterialak egitea.
- Sailari premia pedagogikoak eta ustezko irtenbideak antzematen laguntzea.
- Sailaren lehentasunezko lerroak sustatzea.
- Beste erakunde batzuekin koordinatuta, hezkuntzako jarduerak bultzatzea.

BERRITZEGUNEAREN HELBURUAK

Zein da gure asmoa?

GURE ASMOA lan-talde kohesionatua sendotzea da. Horiek horrela, elkarbizitza-giro atseginean, lanaz gozatuko du, bere lanbidea hobetuko du egunez egun eta erantzun egokia emango dizkie eskualdeko premiei.

GURE ASMOA eskualdeko erreferente erabilgarria izatea da. Horiek horrela, irakasleek, ikastetxeek eta gizarte zein hezkuntza arloko beste erakunde batzuek Berritzegunea, "Prestakuntzarako eta Hezkuntza Berrikuntzarako Laguntza", ezagutu, balioetsi eta kontuan hartuko dute.

GURE ASMOA ikastetxeetan bertan lan egitea, hobeto ezagutzea eta eurekin batera lan egitea da. Horrela, bada, gero eta autonomoagoak izango dira, praktikaren azterketaren bidez hobetzeko, ikasteko eta antolatzeko gaitasun handiagoa izango dute eta prestakuntza zein berrikuntza arloan dituzten premiak antzeman eta proposatu egingo dituzte.

LERRO ESTRATEGIKOAK

Nola lortuko dugu?

1 – Ikastetxeen autonomiaren sustapena.

- Irakasle-taldeek funtzionamendua, koordinazioa eta zuzendaritza-egiturak sendotu behar dira.

Neurri honetan, ikastetxeek euren premiak azaldu eta lehentasuna emango dizkiete, eta euren jarduketan-lerroak zehaztuko dituzte.

2 – Partaidetzan oinarritutako agerpena ikastetxeetako eguneko jardueran, batera zehaztutako testuinguruetan.

- Bertako lan-taldeetan parte hartu behar da sarriagotan.
- Baliabideak prestatzen lagundu behar da.
- Lantzean behin, zuzenean parte hartu behar da ikasgelako bizimoduan.

Testuinguru horretan, aholkularitzak eta prestakuntzak zentzua daukate, eta lankidetzan oinarritutako ikaskuntza-esparrua garatzen da.

3 – Lan-proiektuen sustapena.

- Banan-banakotasunean eta talde txikian oinarrituta, aurrera egin behar da, harik eta irakasle-talde osoa inplikatu arte.
- Jarduera solteak proiektu orokorretan hartu behar dira kontuan.

Beste batzuei buruzko lanaren ideia gainditu behar da, eta beste batzuekin garatutako lanaren ideiarantz egin behar da aurrera, gero eta sinesgarriagoak izateko.

4 – Ikastetxeekin batera lan egiteko estiloaren sustapena.

- Hurbiltasuna eta konfiantza bilatu behar dira.
- Irakasleen ahalegina eta lorpenak balioetsi behar dira.
- Ekarpinak egin behar dira, irakasleen ekarpinak sustatu behar dira eta adituen ekarpenei eman behar zaie zentzua.
- Etengabeko prestasuna erakutsi behar da.

5 – Ikastetxeetan batera garatu beharreko partaidetza.

- Lerroen, programen, etapen... arabeko ikuspegi berezian oinarrituta, aurrera egin behar da, harik eta ikastetxeen premiak ardaztat hartzen dituen ikuspegi orokorrera iritsi arte.

Fitxa mugitzean, hezkuntza-prozesuaren puzzlea antolatzen da berriro. Fitxa bakoitza garrantzitsua bada, puzzlearen ikuspegi orokorra erabakigarria da.

6 – Berritzeguneko taldearen eraketa.

- Harreman pertsonalak eta talde-harremanak sustatu behar dira:
 - Giro atsegina eta lasaia sortzeko.
 - Nork bere lekua aurkitzeko.
 - Bestea onesteko, balioesteko eta laguntzeko.
- Etengabeko prestakuntza bultzatu behar da:
 - Gainerakoek zer egiten duten jakin behar da.
 - Banan-banan zein taldean egindako lana elkarrekin berrikusi behar da, aztertzeko eta behar beste aldatzeko.
 - Beste berritzegune batzuen esperientziatik ikasi behar da.
 - Adituekin lan egin behar da, aurreikuspen edo itaun berriak zeintzuk diren jakiteko.

7 – Harreman orekatuak administrazioarekin.

- Informazioa trukatu behar da ikastetxeen eta administrazioaren artean, proposamenak ikastetxeen premien arabera izateko.

8 – Lan-prozesuen sistematizazioa.

- Zenbait sistema erabili behar dira, ahaleginari errentagarritasuna ateratzeko, prozesuak sistematizatzeko eta agiriak behar den moduan erabiltzeko.

PLAN ESTRATEGIKOAREN IRAUPENA

Plan Estrategiko honek lau urteko iraupena izango du. Hala ere, berrikusi egingo da, eta behar besteko aldaketak egingo dira.

BARAKALDOKO BERRITZEGUNEA. Ekaina. 2006